

## INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEKO LAN TALDEAREN INGURUKO MOZIOA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko abenduaren 14ko Zerbitzu Orokorretako Batzordean eztabaidatutako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

Urriaren 3an ospatutako Berdintasunerako Aholku Kontseiluan, elkarte eta talde ugari izan ziren, eta bertan indarkeria matxistari aurre egitea lehentasunezko ildoan izan behar zela adierazi zuten. Geroztik, anitzak izan dira kontseilura iritsitako proposamenak eta guztiak aintzat hartzeko moduan, eragileak izan dira Lan Talde bat osatzeko proposamena aurkeztu dutenak.

Zorionekoa da ikustea nola Donostia lan egiteko gogo biziz dauden emakume taldez osatua egotea, eta horren aurrean beharrezkoak diren baliabideak eskuragarri jartzea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu. Aldiz, Donostiako Udalbatzak behin baino gehiagotan onartu dituen Adierazpen Institutuzionaletan zein harturiko erabaki ezberdinetan oinarritu beharrean, Berdintasunerako zinegotzi ordezkariak ez dirudi iritzi berdinekoa denik eta, hori dela eta, abenduan egin ditugun batzordeetan jasotako erantzunekin kezkatu, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari, eta bereziki Berdintasun Zinegotziari, eskatzen dio, urtarrilaren hasieran, Berdintasuneko Aholku Kontseilua deitzea eta Indarkeriari aurre egiteko Lan Taldea martxan jartzea.

Donostian, 2015eko abenduaren 17an

Naiara Sampedro Perez  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia